


Michael Klant  
Institut der Bildenden Künste / Art Department  
Pädagogische Hochschule / University of Education  
Kunzenweg 21, D-79117 Freiburg  
privat: Scheffelstr. 49, 79102 Freiburg  
Tel. +49 0160-96 00 44 96  
klant@ph-freiburg.de

Deutsch-Baskischer Kulturverein Gernika  
Euskal Etxea Berlin  
Ainhoa Añorga Osa / Constanze Lindemann  
c/o MedienGalerie  
Dudenstr. 10, D-10965 Berlin  
Tel. +49 163 159 1905 / +49 151 22 90 8424  
info@euskaletxea.de

Gernika Gogoratuz  
Bakearen Aldeko Azterregia / Peace Research Center  
Centro de Investigación por la Paz  
María Oianguren Idigoras / Andreas Schäfer  
Artekalea, 1, Gernika-Lumo, País Vasco, Spanien  
Tel. +34 94 625 35 58  
andreasschaefter@gernikagogoratuz.org



## Himmelstausch / Zeru-trukaketa – Gernika eta Berlinerako proiektua

Zerua zeharkatzen duten hodeiak dira naturak gizakiari eskaini dakioken ikuskizun adierazkor eta aldakorrena. Hodeiek ikuslearen fantasia kilika dezakete, bedeinkapena zein zoritxarra ohartaraz dezaketen bezala. Beraien errepresentazioak tradizio zaharra dauka artearen historian. Hasieran, eredu jainkotiarren irudikatzen zituzten, 1802tik aurrera, gaur egun arte dirauen sailkapen zientifikoen arabera izendatzen dira: Cirrus, Cumulus, Nimbus eta Stratus.

Alderdi estetiko, metafisiko eta meteorologikoak alde batera utzirik ere, hodeien iruditeriak dimentsio politiko bat ere badauka: hodeiak askatasunaren eredu dira, forma eta molde unibertsalen jabe, nazioek ezarritako mugez gain dabilzanak.

Baina, XX. mendetik aurrera, zerutik ez datorzigu bakarrik naturaren arriskuak, mehatxu militarrek ere bai. 1937ko apirilaren 26an, Espainiako Gerra Zibilean (1936-1939) erdian, Condor Legio alemaniarraren bonbek armada italiarraren laguntzaz Gernika hiri euskalduna suntsitu zuten. Eraso haren oroimenak bizirik dirau arteari esker: Pablo Picassok 1937ko Parisko Erakusketa Unibertsalerako margotu zuen “Guernica” artelanak erakutsi bezala.

Espainiako Gerra Zibilean, Franco general eskuindarrak bultzatutako estatu kolpeak demokratikoki hautatutako Errepublika deuseztu zuen, arma eta teknika militar berriak frogatu zituzten alemaniar eta italiarren laguntza militarrekin. Ondorengo II Mundu Gerran (1939-1945) teknika horiek berrerabili zituzten, beste hiri asko zerutik suntsituz, besteak beste Berlin, Alemaniako hiriburua eta 1933tik faxisten esku zegoena.

Himmelstausch / Zeru-trukaketa proiektuak Berlin eta Gernikako zeruak artistikoki elkar lotzeko asmoa du. Berlinen hegazkin bati lotutako pankarta baten bidez, Gernikako zerua erakutsiko da. Gernikan, era berean, Berlingo zerua agertuko da. Inbasio artistiko bat izango da hau, memoria bultzatzeko bake-mezu bat, jendea berradiskidetzeko ekintza bat, gatazka nazionalak berragertzen ari diren garai honetan inoiz baino garrantzitsuagoa baizaigu.

Irudiak nazioarteko artista talde batek egingo ditu, lekuan lekuko argazkietan oinarritutako margoak sortuz. Beraien elkarlanak sinbolizatuko du bi hirien arteko lotura.

Hegazkinek tiratutako pankartak lurreratu aurretik bota behar direnez, ekintza ez da bakarrik mugaz gain doazen hodeien bidez irudikatuko, baita ere zerua zeharkatzen duen pankartak irudikatutako bake-mezu bezala, suntsiketaren kontra-eredu poetiko bezala uler daitekeena.